



‘Je suis Egunkaria’

Martxoan Parisera joatekoa naiz, Liburu Azokara, urteroko legez. *Je suis Egunkaria* dioen kartel txiki bat jarriko dut *Charlie Hebdo*-ren egoitza ondoan eraiki duten aldairetxo zibil horretan, lore, argi eta atxikimendu testuen artean.

Hala adieraziko dut nire atxikimendua, *Egunkaria*-tik, biktimatik biktimara. Honexek elkartzen gaitu gehien, gutako baikoitzaren lerro editorialak, kode deontologikoak edo estilo liburuak ez bezala. Basakeriaren biktima gara biok, intolerantziarenak, jihadistarena haiek, estatuarena gu. Terrorismoarekin lotuta haiek eta gu. Prentsaren aurkako atentatuak izan dira biak, gurea hilketarik gabe zorionez, baina garesti ordaindua: *Egunkaria* ixtea eta kazetari eta arduradunak preso hartzea, torturatzea, epaitzea, urtetan gatibutza moral, sozial eta ekonomikoan lotzea... ez da anekdota.

Beldurra eman zidan aurrekoan Valls lehen ministro frantsesak *Charlie Hebdo* besapean eta sare sozialak kontrolatzeko neurriak iragartzen ikusi nuenean. Beldur naiz, bai, martxoan biktimen karteltxo askoz gehiago ez ote diren *Charlie Hebdo*-ren ondoan bilduko, sare sozialetako makina bat hedabide, neurri berrien biktima. 2015eko *Parisko espiritualak* 2001eko aire zaharrak ekarri dizkit gogora.

Harrigarri egin zait Parisen egunotan gertatu dena, horren konplexua izanik, simplismora ekartzeko joera, testuingurutik at utziz: *Charlie Hebdo*-k islamismoarekiko mantendu duen jarrera, immigrazioaren integrazioerik eza, gobernuaren kanpo politika. Gertakariekin zerikusirik

ez balute bezala. Ez dut atsegin izan XXI. mendeko Frantziaren irudia. Nostalgiaren lanbro artean gelditu zaigu 68 osteko urteetan ezagutu genuen Paris hura: bor-bor intelektual askotariko hura!

Bestelakorik espero nuen. Aukera bikoitza zuen gobernuak, estatuak: demokrazia

gehiagoz erantzun ala segurtasunaren bidetik jo. 2001eko Bushen bideak irabazi du partida. Orduan bezala orain, terrorismoak izenlaguna du: jihadista da orain. Laster galduko du izenlaguna. Eta handituz-handituz joango da terrorismoaren eremu semantikoa, disidentziak oro barruan aise kabitzen direlarik. *Déjà vu*. Ikusia eta sufriria dugu hori, horren biktima baita *Egunkaria*.

Egunotan, hain zuzen, adierazpen askatasuna hitzetik hortzera erabili da. Gutxi landu da, ez da aztertu; inbokatut egin da,

Adierazpen askatasuna hitzetik hortzera erabili da. Gutxi landu da, ez da aztertu; inbokatut egin da, akdarrikatu: adierazpen askatasuna sakratua da, bako absolutua da, mugarik gabea da

aldarrikatu: adierazpen askatasuna sakratua da, balio absolutua da, mugarik gabea da. Horra tesia. Gehixeago sakontzea maiteko nuen. Dolu garaian egonik, agian ez da ordua. Bego.

Mantra gisa aipatzen da mugarik gabea dela adierazpen askatasuna. Ez dakit zer esan nahi den horrekin. Hiritar guztiok legearen aurrean berdinak garenez, guztiok libre garelako iritziak emateko? Bai, hori da kontzeptu horren adiera liberala. Besterik da, ordea, eskubide hori noiz den egiazkoa. Marxista porrokatua zertan izanik ez da zera frogatzeko, adierazpen askatasuna baliatzeke librearek, horretarako baldintza materialak dauzkatenak soilik direla. Ez dira estatuak bakarrik adierazpen askatasunari muga jartzen diotenak. Hedabide handiak, informazio guneak, gutxi batzuen eskuetan daudela nor ez daki? Minoriek, baztertuak, hiritar diren aldetik, eskubide berberak izango dituzte, bai, baina aukerak?

Bestalde, adierazpen askatasuna, bera bakarrik, gutxi batzuen pribilegioa izan daiteke; hala da, gainerako askatasun guztiakin batera ematen ez bada. Klasista da, inolaz ere ez demokratikoa.

Kontua ez da bakarrik nor baliatzen duen adierazpen askatasun hori, baizik eta, baita ere, norren kontra. Gizabanako, minoria eta marjinatu asko babesgabe daude kasu askotan uesteko eskubide horren erabilzailaaren aurrean, indar erlazioa kontuan hartuta. Urrutira joan gabe dakigu zer den hori.

Adierazpen askatasunaren muga bakarra legea omen da. Hori ere dogma da. Eta hala izango da, hala baldin bada. Legeria, dakigunez, herri baten baldin sistemaren isla da, bai, baina bere historiaren memoria ere bai. Historia horren haririk, esate baterako, Frantziaren delitua da antisemitismoa, baina ez antiislamisismoa. Bi aldiz pentsatu behar da juduari iseka egin aurretik. Dieudonnek badaki hori. *Charlie Hebdo*-k bazekien musulmanak irainduta ere arrisku juridiko gutxi zuela. Bestelakok, bai, zoritxarrez.

Adierazpen askatasunak, azkenik, beste osagai bat behar du: erantzukizun soziala, hain zuzen ere *Charlie Hebdo*-k bere buruari onartzen ez ziona, *journal irresponsable* izatearen harrotasuna baitzuen. Nire ustetan, aldez, joko eremuan etika sartzen ez bada, jai dugu. Ez da etikoa, adibidez, adierazpen askatasuna babes edo ezkutu hartu eta, minoria, zapaldua edo baztertua kolpatzea eta iraintzea... legeak oro alde izanik ere. Ala bai?

Berriz diot: beldur naiz askatasun ilunaldian ez ote garen sartuko. Frantziak egin duen aukeran, adierazpen askatasuna ez eze askatasun guztiak aterako dira gaitzaille.



IRITZIA
Joan Mari
Torrealdai